

Ipuina



Kaixo, ni Pitxu enara naiz eta burua eta bizkarraldea beltz kolorekoak ditut. Baina paparra gorria eta sabelaldea zuri kolorekoak ditut. Horretaz gain, urtean zehar hainbat leku ezberdinetan bizi naiz beroa pila bat gustoko dudalako.

Hori dela eta, nire bidaiari hasiko dut leku epel baten bila. Lagunduko nauzu?

Ba has gaitezen bidaiari! Goazen nire mapa begiratzera!



Uhmhhh, abenduan gaude, beraz, afrikako hegoaldean bizi naiz baina hotza egiten hasi da, eta hotzarekin intsektuak desagertzen dira (triste). Eta intsektuak nire janaririk gogokoena dira... Beraz, Euskal Herrira bidaiatuko dut! Han martxoan beroa egiten hasten da eta intsektu pila bat egongo dira! Baina... bidaiari luzea denez, geldialditxoren bat egingo dut!



Gure enara Pitxuk bere bidaiari hasi zuen, eta bere lehenengo geldialdi Egipon egin zuen.

- *Hau da piramideak! Zein handia den!* - dio Pitxuk.
- *Bai dela handia!* - erantzuten dio alboan jartzen zaion beste enara batek.
- *Nor zara zu? Ni Pitxu enara naiz.* - dio Pitxuk.
- *Nik Patxo dut izena. Pitxu, zer egiten ari zara hemen,*

Egipon?

- *Beroaren bila nabil, hemen hotza egiten hasi da eta ez dut nire janaririk gustokoena jateko aukerarik. Nirekin bidaiatu nahi duzu?* - dio Pitxuk.
- *Baiiii, zurekin batera joango naiz, Pitxu!*

Pitxuk eta Patxok bidaia berriz ere hasi zuten, eta Italiara heldu ziren.



- *Patxo, hau ez da Euskal Herria, begira, Koliseoa ikus dezaket hemendik!*
- *Egia da, hori Koliseoa da! Italian gaude!*
- dio Patxok.
- *Hemen eguraldi epela egiten du, beraz, hemen gure janaririk gustokoena topatuko dugu, intsektuak!*

Baina, Pitxuk eta Patxok ez zuten intsektu askorik topatu, beraz, berriz ere beraien bidaia hasi beharko zuten Euskal Herrira bidean.

Lortuko ote dute Euskal Herrira heltzea eta haien janaririk gustokoena lortzea?